



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/10/25

## **Bizkaiko Batzar Nagusiek berretsi egin dabe Aldundiaren eta nazinoarteko ekintzailtza eta barrikuntza guneen arteko hitzarmenen aldeko jarrerea**

Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek, Talde Popularraren eta Talde Mistoaren laguntzeagaz, Bizkaiko Foru Aldundiari eskari honeek egiten eutsazan arauz besteko proposamena onetsi dabe gaur Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Batzordean: “Bizkaia munduko ekintzailtza eta barrikuntza gunerik aurreratuenakaz daukan lotura politikagaz jarraitzea”; “Bizkaiko *startup-en* garapenari, hazkundearen eta nazinoartekotzeari laguntzeko programak indartzea”; eta, gizarte eta ingurumen arloko klausulak sartzeko foru politikaren barruan eta beste politika publiko batzuei jagokenez, daborduko hartuta dagozan akordioen ostean, “klausula horreek Bizkaiko Foru Aldundiak sinatu behar dituan hitzarmenetan sartzeko bidean aurrera egitea”.

Txanda berean, Batzar Nagusiek ez dabe onetsi, kontrako 11 botogaz –EAJ-PNV, PSE-EE, PP eta Talde Mistoa– Podemos Bizkaia taldearen ekimena, Foru Aldundiari SOSA erakundeagaz sinatu beharreko Lankidetzarako Hitzarmena indar barik ixtea eskatzeko. Idazki horrek, Aldundiaren nazinoartekotze estrategian eta saileko politiketan jasotako printzipioen artean “Bakearen Ekonomia” sartzea be eskatzen eban.

Neskutz Rodriguez Podemos Bizkaia taldeko bozeroalea, starstup bizkorgailu horregaz sinatu dan hitzarmenaren kontra agertu da, eta esan dau ez dauela ulertzen “gizarteagaz eta ingurumenagaz erlazionautako klausulak sartzan dituan Aldundi honetatik, zelan sinatzen dan akordio bat Israelegaz, giza eskubideak modu sistematikoan zapaltzen dituan estadua dala jakinda”.

Halanda be, Isabel Cadaval batzordekide sozialistak gogoratuazo dau egoitzea Tel Aviv-en eta Estatu Batuetan daukan SOSA bizkorgailua “erakunde pribadua dala, eta ez Israelgo estadua”. Euzko Abertzaleak taldeagaz batera bultzatutako arauz besteko proposamena defendiduteko orduan, Cadavalek gogoratuazo dau “Bizkaia eta bertako erakundeek industria forma barri horreen abangoardian egoteko egin behar dabela behar”, “gizarteagaz eta ingurumenagaz erlazionautako klausulak baztertu barik” bada be.

Ildo berean, Aitor Ibarra batzordekide jeltzaleak adierazo dau, Aldunditik, Bizkaia “modernoa, gertukoa, arduratsua eta munduagaz konektatutakoa” lortzeko egiten dala behar. Horretarako, Ibarren berbetan, beharrezkoa da “kalidadezko enplegua sortuko dauen produkzino egiturea izatea, gizarte aurreratua eta solidarioa izaten jarraitzeko”. EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek bultzatutako ekimenaren xedea “Bizkaia Goazen 2030 ekimenak arlo horretan dituan lau ardatz estrategikoak indartzea” da.

Arturo Aldecoa Talde Mistoko bozeroalea ados agertu da Foru Gobernua eusten daben taldeen proposamenagaz. Halanda be, Podemos Bizkaia taldeari bere proposamena baztertu eta barriro formuletak eskatu deutso: “Akats bat da estatu demokratiko baten inguruko eztabaidan sartzea”. Jesús Isasi batzordekide popularrak, bere aldetik, Bizkaia

Goazen 2030 ekimenaren aurretik erakundeek barrikuntzaren inguruan aurrera eroan daben beharra jarri dau balioan. Bere taldearen eretxiz, behar horrek “jarraitu egin behar dau”.

EH Bildu taldea abstenidu egin da proposamen bietan. Joseba Gezuragak bertaratuei gogoratuazo deusenez, bere taldea bat dator Podemos Bizkaia taldeagaz Israeli buruzko balorazioan. Halanda be, eta SOSA erakundea eta Israel aitatuta, “gauza desbardinak dirala” azpimarratu dau. Beste alde batetik, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek bultzatutako ekimenaren bozketako abstentzinoa, “labur geratzen dala” esanez justifikau dau.

Azkenean, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen ekimena 11 botogaz –EAJ-PNV, PSE-EE, PP eta Talde Mistoa– eta 4 abstentzinogaz –EH Bildu eta Podemos Bizkaia– onetsi da, eta Podemos Bizkaia taldearen arauz besteko proposamenak aldeko boto bi –Podemos Bizkaia-, kontrako 11 –EAJ-PNV, PSE-EE, PP eta Talde Mistoa– eta abstentzino 2 –EH Bildu–, izan ditu.

## EUSKALDUNA ZUBIA

Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Batzordeak aho batez onetsi dau Talde Popularrak bultzatuta, Felipe Cobo Sánchez Kontserbazino Zerbitzuko Burua eta Carlos Estefanía Angulo Errepide Sarearen Kudeaketa Zuzendariorde Nagusia batzordera etortea eskatzen eban eskaria, joan dan bagilaren 28an Euskalduna Zubian izandako gertakarien ganeko azalpenak emoteko. Proposamena aurkeztu dauen taldearen berbetan, agerraldi horreen helburua jenteari eta taldeei “nasaitasuna eta segurtasuna emotea” da.

Minutu batzuk geroago, Foru Aldundia eusten daben taldeek ez dabe onetsi Talde Popularraren beste ekimen bat. Bertan, Euskalduna Zubian jarduteko Bilboko Udalagaz jarduketarako protokoloa ezarteko eta sinatzeko eskatzen jakon Bizkaiko Foru Aldundiari. Oposizino talde guztiek adierazo dabenez, protokolo bat ezarteak “arinago jarduteko” aukerea emongo leuke.

Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen aldetik, Mikel Bagán eta Ignacio Jerónimo batzordekideen eretxiz ez da beharrezkoa protokoloa sinatzea, egun haretako jarduketea eta Aldundiaren eta Bilboko Udalaren arteko koordinazioa “zuzena” izan zala uste dabelako.

## SARATXOKO BIDEAREN ZAHARBARRITZEA

Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Foru Diputatuak emon deutso amaiera eguneko gai zerrendari, Talde Popularrak Saratxoko bideari buruz egindako ahozko erantzun-eskeari erantzunez. Arabako Foru Aldundiak egin gura dau aitaturako obrea, bide hori BI-625 errepideagaz lotuz.

Pradalesek adierazo dauenez, behar hori BI-625 errepideagaz lotzea “bere unean daborduko planteauta egoana da”. Foru Diputatua pozik agertu da, Arabako Foru Aldundiak “azkenean, “Malato Zugatxaren Hitzarmena bete behar dauelako”.

NOTA DE PRENSA

25/10/18

## **Las Juntas Generales reiteran su apoyo a los convenios entre la Diputación y los nodos de emprendimiento e innovación internacionales**

Los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, con el apoyo del Grupo Popular y el Grupo Mixto, han aprobado esta mañana, en el seno de la Comisión de Desarrollo Económico y Territorial, una proposición no de norma que insta a la Diputación Foral a: “continuar con su política de conexión de Bizkaia con los nodos de emprendimiento e innovación más avanzados del mundo”; a “reforzar sus programas de apoyo al desarrollo, crecimiento e internacionalización de las *startups* de Bizkaia”; y a, en el marco de la política foral de incorporación de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas pública y tras los acuerdos ya adoptados, “avanzar en la incorporación de estas cláusulas en los convenios a firmar por la Diputación Foral de Bizkaia”.

En el mismo turno, las Juntas Generales han rechazado con 11 votos en contra – PNV, PSE-EE, PP y Grupo Mixto- una iniciativa en la que Podemos Bizkaia insta a la Diputación Foral que revoque el Convenio de colaboración suscrito con la organización SOSA. El escrito también solicita que incluya los principios contenidos en el concepto de "Economía de la Paz" en la estrategia de internacionalización de la Diputación así como en las políticas del departamento.

La portavoz de Podemos Bizkaia, Neskutz Rodriguez, se ha mostrado contraria al convenio suscrito con esta aceleradora de startups y ha asegurado no entender cómo “desde esta Diputación, que se incorporan cláusulas sociales y medioambientales, se firma un acuerdo con Israel, un estado que vulnera sistemáticamente los derechos humanos”.

No obstante, la apoderada socialista Isabel Cadaval, ha recordado que la aceleradora SOSA con base en Tel Aviv y Estados Unidos, “se trata de una entidad privada, no el Estado de Israel”. En defensa de la PNN impulsada junto con el grupo Nacionalistas Vascos, Cadaval ha recordado que “Bizkaia y sus instituciones están obligadas a trabajar para estar a la vanguardia de estas nuevas formas de industria”, aunque “sin dejar de lado las cláusulas sociales y medioambientales”.

En la misma línea, el apoderado nacionalista Aitor Ibarra ha manifestado que, desde la Diputación, se está trabajando para lograr una Bizkaia “moderna, cercana, responsable y conectada al mundo”. Para ello, según Ibarra, es fundamental “contar con un tejido productivo que sea generador de empleo de calidad para seguir siendo una sociedad avanzada y solidaria”. La iniciativa impulsada por el PNV y el PSE-EE, busca “reforzar los cuatro ejes estratégicos del Bizkaia Goazen 2030 respecto a esta área”.

El portavoz del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa, se ha mostrado de acuerdo con la propuesta de los grupos que sustentan al Gobierno foral. Sin embargo, ha solicitado a Podemos Bizkaia que retirara y reformulara la suya: “Es un error entrar a discutir sobre un estado democrático”. Por su parte, el apoderado popular, Jesús Isasi, ha puesto en valor la labor

que las distintas instituciones han llevado a cabo desde antes del Bizkaia Goazen 2030 respecto a la innovación. Un trabajo que, en opinión de su grupo, “debe continuar”.

El grupo EH Bildu ha optado por la abstención en ambas propuestas. Joseba Gezuraga ha recordado a los presentes que su grupo coincide con Podemos Bizkaia en su valoración sobre Israel. No obstante, y haciendo referencia a la entidad SOSA y a Israel, Gezuraga ha manifestado que ambas “son cosas distintas”. Por otra parte, ha argumentado su abstención en la votación de la iniciativa del PNV y el PSE-EE declarando que ésta “se queda corta”.

Finalmente la iniciativa de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos ha salido a adelante con 11 votos favorables – PNV, PSE-EE, PP y Grupo Mixto- y 4 abstenciones – EH Bildu y Podemos Bizkaia-, mientras que la proposición no de norma de Podemos Bizkaia ha decaído con 2 votos a favor- Podemos Bizkaia-, 11 votos en contra- PNV, PSE-EE, PP y Grupo Mixto- y 2 abstenciones – EH Bildu-.

#### PUENTE EUSKALDUNA

La Comisión de Desarrollo Económico y Territorial ha aprobado por unanimidad la petición de comparecencia, impulsada por el Grupo Popular, del Jefe de Servicio de Conservación, Felipe Cobo Sánchez, y del Subdirector General de Gestión de la Red Viaria, Carlos Estefanía Angulo, en relación a los hechos acaecidos el pasado 28 de junio en el Puente Euskalduna. Según el grupo proponente, el objetivo de estas comparecencias es “dar tranquilidad y seguridad” a la gente y a los grupos.

Minutos más tarde, los grupos que sustentan al Gobierno foral han desechado una iniciativa del Grupo Popular en la que se instaba a la Diputación Foral de Bizkaia a establecer y firmar un protocolo con el Ayuntamiento de Bilbao para actuar en el Puente Euskalduna. Todos los grupos de la oposición han coincidido en que establecer un protocolo permitiría “actuar con mayor rapidez”.

Desde Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, los apoderados Mikel Bagán e Ignacio Jerónimo, han visto innecesario la firma de un protocolo al considerar “correcta” la actuación aquel día y la coordinación entre Diputación y Ayuntamiento de Bilbao.

#### REFORMA DEL VIAL DE SARATXO

El Diputado Foral de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, ha cerrado el orden del día respondiendo a una pregunta oral del Grupo Popular en relación a la reforma del Vial de Saratxo, que la Diputación Foral de Alava pretende llevar a cabo, y el encaje de la misma con la BI- 625.

Pradales ha manifestado que el encaje de esta obra con la BI- 625 “es el que estaba ya planteado en su momento”. El Diputado Foral se ha congratulado de que la Diputación Foral de Araba “cumpla por fin con el Convenio del Árbol Malato”.